

MUNDIALA!

Maddi Aiestaran Iparragirre

Beasain

Bana. Luzapeneko azken minutua. Urduritasuna da nagusi. Falta benetan gogorra egin diote Aneri, area barruan; ezintasunak eragindako falta larria. Zale txuri-urdinak haserre, txistuka,... Arbitroak penaltia adierazi du, gure alde. Hauxe da gure aukera! Horrenbeste amestutako liga “eskuetan” daukagu! Zubieta lehertzear dago. Egun historikoa izango da gaurkoa: Erreal, lehendabiziko aldiz, ligako txapeldun! Emakumezko txuri-urdinak txapeldun! Nork esango zidan niri honaino iritsi behar nuenik!

Penaltia jaurti behar dut. Niri begira daude denak. Aupa Marina! entzuten dut harmailetatik. Lasai, Marina. Kontzentra zaitetz. Oso trebea zara penalti-jaurtiketetan. Gaurkoan ere ondo egingo duzu. Baloia eskuetan hartu, eta banoa jaurtiketa-puntuan kokatzera. Eskuak dardarka sumatzen ditut, bihotza taupaka... Baina berdin da: ongi egin behar dut, gola sartu behar dut, nigan konfiantza osoa daukate-eta denek. Ez diet huts egingo.

Parean dudan neska beltzaranari begira nago: etengabe mugitzen ari da, ni nahastu nahian.

Baina ez, ez da berearekin irtengo. Ez horixe! Aitonak ederki asko erakutsi zidan horrelako egoe-
rei nola egin behar zaien aurre. Futbolzale amo-
rratua zen. Amonak beti esaten zuen odolean zera-
mala futbola. Beti jokatzeko prest egoten zen.
Hamaika aldiz egin genuen biok futboleant, etxe
azpiko plazan, hondartzan, mendian... Makina bat
trikimailu erakutsi zizkidan. Egiten nuen jokaldi
polit bakoitzeko, “Mundiala, Marina!” esaten
zidan, eta mundial sentitzen nintzen. Gerora,
herriko futbol-taldean jokatzeko hasi nintzenean, ez
zuen partida bat bera ere galtzen. Hasieran, muti-
lekin batera jokatzeko nuen, eta “mutilek ez didate
baloia pasatzen” esanez kexatzen nintzenean,
horrela esaten zidan: “Lasai, Marina, berehala kon-
turatuko dira beraiek bezain ona edo hobea zere-
la”. Eta barrenean neukan tristura uxatzea lortzen
zuen. Gogoan dut bere magalean eseri eta belarri-
ra nola esaten nion “Aitona, nik, handitan,
Errealean jokatu nahi dut”. Berak irribarre egiten
zidan; baina irribarre zoragarri haren atzean baze-
goen tristura puntu bat, inoiz izan ez zuen biloba
mutikoaren faltak eragiten ziona. Orduan ez zuen
pentsatzen nik Errealean joko nezakeenik, mutilen
talde nagusia bakarrik baitzeukan buruan. Baina
denbora pasa ahala, gero eta harroago zegoen
nitaz, bai baitzekien bere bilobak ere, neska izan
arren, berak bezalaxe bizi zuela futbola, eta hark
ere, berak bezalaxe, odolean zeramala futbola.
Pixkana-pixkana konturatu zen, gainera, gauzak
aldatzen zihoazela, ez zela bere garaian bezala; eta

neskok ere futboleak joko genezakeela, bere biloba kuttunak ere, neska izan arren, Errealean joko zezakeela. Gogoan dut, Errealean lehendabiziko aldiz jokatu nuen egunean, partida amaitu ostean, besarkatzen ninduen bitartean esan zidana: “Diru gabe baina izarrak gurekin daude”. Asko gustatu zitzaidan; gu bion abestia zen Lau Teilatu, txikitan ni lokartzeko erabiltzen zuen abestia baitzen. Gerora, behin baino gehiagotan errepikatu izan diot esaldi hori neure buruari; batez ere, etsita eta burumakur ibili izan naizenean.

Bada garaia munduari erakusteko neskoko ere sekulako maila dugula. Partida itzela izan da, tentsio handikoa. Oso ondo jokatu dugu, baina azken gola, berdinketa hautsiko duen gola, liga irabazteko gola falta da. Sartu beharra daukat. Oraingoan bai. Lehenengo zatiaren amaieran izan dudana aukera paregabea datorkit burura. Kale egin dut, eta nire buruarekin haserretu naiz. Oraingoan ez dizuet huts egingo. Ez horixe! Harmailetako zaleak oihuka ari dira, ni animatzen, nire izena behin eta berriz errepikatzen; baina oihu zirrarragarri horien guztien gainetik, bere ahotsa nagusitzen da: aitona da, nire aitona maitea, nire irakaslea. Honela esaten dit: “Marina, Panenka! Gogoan duzu nola irakatsi nizun ezta? Ziur naiz ondo aterako zaizula! Mundiala izango da, seguru! Animo!”

Bihotza eztarriraino igo zait, eta irribarre txiki-txo bat atera zait. Baloiari begiratu diot. Aitonarekin jolasten nuenean, beti ondo egiten nuen. Gaur ere ondo aterako zait; aitonarengatik, nigan

sinistu duten guztiengatik, taldekideengatik, harmailetakozaleengatik... Bai, lortuko dut. Aitonak lagunduko dit, ziur nago.

Begiak itxi, hasperen egin, eta banoa. Hiru pauso maltzur aurrera, eta...

GOOOOOOOOOOOL!!!!

Bai! Sartu dut! Irabazi egin dugu! Brinkoka noa, besoak gora jasota, zelaiaren ertz baterantz. Taldekide guztiak gainera datozkit! Arbitroaren txilibitu-hotsa ere ez dut entzun, Zubietako oihu, algara eta irrintzien artean. Harmailak “sutan” daude. Eta ni, berriz, hunkituta, oso hunkituta! Talde osoa elkarri besarkatatuta gaude: jokalariak, entrenatzailea, sendagileak, fisioterapeutak, ... baita harmailetatik salto egin eta guregana etorri diren zenbait zale ere. Hau ikaragarria da! Emakumezko txuri-urdirak ligako txapeldun gara! Hainbestetan amestutako liga eskuratu dugu! Ondo merezia genuen, neskak!

Denen artean, besoetan hartu naute. Gora eta behera narabilte! Zorabiatzeko zorian nago... Bat-batean, zeruan nagusi den eguzkiaren ondoan lotsati ageri den hodei baten gainean, aitona ikusi dut, niri begira, harro, bere betiko irribarre zoragarria ezpainetan duela, barrezka, eta begiarekin keinu egin dit. Malko potolo bat erori zait masailean behera.

AITONA, HAU ZURETZAT DA! MUNDIALA ZARA!